



Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

ARLOA: PLASTIKA ETA IKUS HEZKUNTZA



LEHEN HEZKUNTZA



Sarrera

Irekitzera doan epealdi berrian heziketa artistikoaren arloko curriculuma osatzen duten elementuak aurkeztu baino lehen, beharrezkoa da azken hamarkadotan arlo horretan gertatzen ari diren funtsezko aldaketei aipamena egitea.

Aldaketa horiek, beste diziplinetan eta ezagutza-arloetan gertatu den bezala, honako zioengatik gertatu dira: gizarteak gogoeta egin duelako hezkuntzari esleitzen dizkion funtzioei buruz, bai eta haurtzaroari eta nerabezaroari buruzko kontzepzioen gainean ere, aldaketa sozial zein politiko sakonak eman direlako, eraldatu egin delako ikaskuntza begiratzeko modua, etab. Baina, gure arloan, gainera, harreman zuzena dute praktika artistikoak konfiguratzeke modu berriarekin; praktika hauek gero eta muga ahulagoak dauzkate, eta neurri batean teknologia berriek sustatutako baliabideen, euskarrien, kontzepzioen eta planteamenduen garapen esponentziala agertzen dute. Barnean hartzen dituen testuinguru kulturalak eraldaketa handiak izan ditu, hein handi batean informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten garapenagatik, baina baita beste hainbat faktorerengatik ere, hala nola kulturen eraginaren aniztasun eta aberastasuna, edota aisia igarotzeko modua, oso garrantzitsua bihurtu dena merkatuan. Testuinguru honetan, esangura berezia hartzen du maila goreneko kultura artistikoak. Baina, gainera, kontsumitzen ditugun objektu eta irudi gehienak gero eta itxura estetiko zainduagoarekin aurkezten zaizkigu. Era guztietako erreferentzia estetikoak dituen gizartean bizi gara, instituzio artistikoek iraganean arte gisa definitutakoak izan ala ez.

Hala, honakoak dira heziketa artistikoa eskolan emateko erabili izan diren arrazoiak: XXI. mendeko lehen hamarkada honetan, sormenaren, irudimenaren, garapen eragilearen, sentsibilitate estetikoaren zein gorputzaren espresioaren garapena bezalakoak nabarmentzen dira. Europako herrialderik aurreratuenetako heziketa-proposamen guztietan jaso da heziketa artistiko egokiak daukan garrantzia, ez sentsibilitate estetikoan soilik, baizik eta baita



subjektuen heziketa osatuan ere. Horrez gain, kontuan hartu dute inguru ekonomikoetan eta politikoetan duen eragina ere.

Alaskako Southeast Juneau Unibertsitateko Teknologia Hezitzaileko Programako zuzendari den Jason Ohler-ek dioenez, sareko multimedia giroaren eta ordenagailuen bidez esperimentatzen den gehienaren ondorioz, beharrezkoa suertatzen da ikasleek diseinatzaile eta artista bezala pentsatzea eta komunikatzea. Era berean, gaineratzen du ikasleek web orriak ikasgelako proiektu gisa diseinatzeko dituzten eta aurkezpenetan bideoa, grafikoak eta animazioa integratzen dituzten aro honetako bizitzeko eta lan egiteko moduan jasandako aldaketek artea gure garaiko alfabetismo berri bilakatzen dutela. Errealitate teknologiko berriak ulertarazten digu eguneroko ikusizko informazioaren manipulazioak (helburu artistikoekin ala ez) artean beharrezkoak direnak baino gertuagoko pentsamendu gaitasunak sortzen dituela eta gaitasun horien beharra daukala. Egileak dio arteak (aRt) oinarritzko laugarren gaitasuna izan beharko lukeela gizakiak aro digitalean hezteko orduan, eta aurreko 3 Rak (Reading, w'Riting, a'Rithmetic – irakurketa, idazketa eta aritmetika) bezain garrantzitsua dela honakoa ere.

Ukaezina da dimentsio honek heziketa artistikoan daukan garrantzia, gizarteak ikus sorkuntzarako eta pentsamendurako eskatzen duen gaitasuna ematen baitie ikasleei, eta baita gizartearen estimuluaren aurrean beren erantzunak ematekoa ere. Gaur egun, gure gizarteko jende gehiena artearen eta irudien kontsumitzaile soila izatera mugatzen dira. Ikasleen sormena estimulatzea ez datza beren baliabideak erabiltzea sustatzean bakarrik, baizik eta baita pertzepzioko eta espresioiko gaitasun handiagoa emango dioten eta hainbat egoeratan sormena zein komunikazio artistikoa bultzatuko duten bitartekoak eskaintzean ere.

Hezkuntzaren erreformaren inguruan aurrez izandako proposamenek aurreikusi zuten behar hori, eta irudiak gure bizitzan gero eta garrantzi handiagoa duela nabarmendu zuten. Hala, espresioa arteen bidez ziurtatzen zuten alderdi teknikoek eta prozesuzkoek gain, gizartea sortzen ari zen produktu estetikoaren aukera zabala jasotzen zuten curriculumean; hala nola,



komikia, zinema, publizitatea eta abarreko lan-objektuak. Horiek guztiak biltzen zituzten -ia eskusiboki- artearenak ziren analisi formalerako eta teknikorako erremintek, gizakien interpretatzeko eta sortzeko daukaten gaitasunaren mesedetan.

Esan dezakegu hezkuntza artistikoan une honetan izaten ari diren aldaketak askoz ere handiagoak direla artearen antzekoak diren edota artea bezala lan daitezkeen beste produktuen zirkuluan teknologia berrien erabileratik (Internet, etab.) eratorritakoak baino. Paul Duncum-en ustez, aldaketa hauek guztiek zerikusi handiagoa daukate ikuspegiarekin, edukiarekin baino. Gaur egunera arte, nahiz eta aztertzen ziren irudien mota eta aukera handitzen saiatu, arte ederrak erreferentzia baino ez dira izan, eta ikusizko interesa pizten zuten eremuetara (arte herrikoiak, produktu mediatikoak, etab.) eginiko hedapenak osagarriak baino ez ziren.

Hau da, gaur egun hezkuntza artistikoa produktu estetiko ugarirekin aritzen da lanean (arropetako modak, marken logotipoak, haurren aldizkariak, *performance*-ak...), baina, gainera, aldaketak eman dira ikuspegiaren aldetik, bereziki alderdi hauei dagokienez:

- Irudi zein tresna estetikoak, artekoak izan edo ez, euren testuinguru historiko, sozial eta politikoan interpretatu eta kokatu behar dira. Ricardo Marín-en hitzetan: “Zer-nolako baldintza sozialetan sortu eta hedatu dira? Nola iritsi dira guganaino eta nola eragiten diote gure eguneroko bizitzari?” (Marín, 2002, 50. or.). Formala edota teknikoa denaren mugak gainditu behar dira, eta gure artean ditugun produktu estetikoak mediatizatzen dituzten arrazoi sozialetan, ekonomikoetan, boterekoetan sakondu.
- Artearen balio estetikoak eta forma tradizionalak erlatibizatu egiten dira, kultura eta une historiko jakin bateko kontzepzioekin daudelako lotuta, eta ez obrekin. Hala, artea denboran eta kulturetan aldatzen joaten den asmakuntza soziala dela ikus daiteke. Kulturak termino antropologikoetan ulertu behar dira, eguneroko esperientziatik gertu.



- "Bete-bete harrapatuta gauzkan ikusizko unibertso estetikoak oinarrizko papera jokatzen du nortasuna osatzeko orduan, ez omnipresente dagoelako soilik, baizik eta baita indar persuasibo handia duelako ere: praktika kulturekin lotuta dago (.../...), plazerezko esperientziekin (.../...) eta sozializatzeko moduekin (.../...). Baina, gainera, ikusizko unibertsoak kanpora zein barrura begiratzen irakasten du, eta norberari zein munduari buruzko ikuskerak eraikitzen laguntzen du." (Hernández, 2002, 52. or.). Hala, zaila da erantzukizuna saihestea; izan ere, gure haurren bizipenak erreferente estetiko zein emozionalez beteak daude, euren sozializazio-prozesuen zati direnak.
- Ikusizko kulturak ez du hartzailerik edota irakurlerik, eraikitzaileak eta interpretatzaileak baizik, zeren eta bere lanaren aurrean kokatzen den subjektua ez da pasiboa, ez eta independentea ere; subjektu horrek bere esperientzien arabera jokatzen du.

Ikuspuntuaren aldaketa, beraz, eksklusiboki balio estetikoak duten eta espresiboak baino ez diren objektuak ekoiztean datzan hezkuntza artistikoko tradizioak gainditzean oinarritzen da nagusiki. Esparru hau gure kulturari zein errealtateari buruzko gogoeta egiteko gune bihurtu beharko genuke. Izan ere, gure kulturako arteari zein irudiei buruzko gogoeta, elkarrizketa, bilaketa eta jakin-mina sortzea, ekoiztea bera bezain garrantzitsua da.

Arlo honetako oinarrizko helburuetako bat, ikusizko kultura ulertzea eta interpretatzea da. Gure gizartean hainbat bitartekoren bidez (tradizionalak edota teknologia berriak) sortutako elementu ikonikoen garrantziak, dimentsioak eta indarrak, eta elementu horiek kontsumorako elementu bilakatu izanak, beharrezkoa egiten du ikasleei horiek interpretatzen eta analizatzen erakustea. Ikusizko arte mota guztiak pertsonen ideien, sinesmenen eta jarreraren adierazpenak direla adierazi behar zaie. Gizabanakoen eta taldeen nortasunak erakusten dituztela, baina, aldi berean, nortasunak osatu ere egiten dituztela (.../...) Zer izango lirateke proposamen artistikoak egiten, ikusten eta erabiltzen dituzten izaki sozialen bizitza islatuko ez balute, eta eurengan eraginik ez balute? (Freedman, 59. or.)



Ikasgelan landu behar da artea erabiltzeko dimentsioa, giza produkzio kulturean duen lekua -bizipenarekin harreman zuzenean dagoen beharra bezala, mitifikazioetatik eta esentzialismoetatik harago-, gure kulturaren artearen eta gizakien bizitzaren artean dagoen tarte itzela murrizteko.

Hala, plastikaren arloa pribilegiozko gunea bihurtzen da transdiziplinarietatea gauzatzeko eta curriculumeko beste ikasgaiekin modu naturalean lotzeko. Gainera, besteek munduari buruz dauzkaten ikuspuntu ugarietara hurbiltzeko aukera ere ematen du. Ikuspuntu horiek ikusizko kulturaren produktuetan agertu eta agertzen dira.

Azkenik, esan behar da gogoetako dimentsio hau ez dagoela, inolaz ere, ekoizpenetik isolatuta. Ikasleak sortutako artelanak edo lanak beti egon dira ikasleak berak jarduera artistikoari buruz daukan kontzepzioaren, funtzioen eta bizitzari ematen ari zaion zentzuaren arabera iragaziak, korapilatuak edota oinarrituak. Une horretan, gogoeta horiek ikasgelan esplizituak edota implizituak izan daitezke. Kontzepzio horiek gizartean daude errotuta. Haurrek, artean ere, testuingurutik ikasten dute, ez bakarrik ustezko garapen naturaletik. Artean heziketa-tradizioak ulertu du sortzea interferentzietatik babestu beharreko banakako prozesua dela, eta, kasu askotan, lanekin eta erreferente helduekin edota adiskideen eraginekin kontaktuan jartzea saihestu du. Hezkuntza artistikoaren egungo ikusmoldeak tradizio hori gainditzearen aldeko apustua egiten du, gaur egun ikasteari buruz dauden planteamenduekin bat eginez. Planteamendu horiek ikuspegi sozialagoa, partekatuagoa, dialogikoagoa... dute



ARLOAREN EZAUGARRIAK: LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPA

Lehen hezkuntzan arlo artistikoa lantzerako orduan, errealitate konplexua aurkitzen dugu irakasleen heziketa edota geletako azpiegitura bezalako faktoreei dagokionez. Hori bai, errealitate hori ezagutu beharra daukagu sortzen diren arazoei ahal den neurrian ekiteko eta horiek gainditzen saiatzeko.

Plastika eta ikus-artearen kasuan, ez dago heziketa espezifikoa jaso duen irakaslerik; ondorioz, ikasgaia gelako irakasle-tutorearen esku geratzen da. Ukaezina da gaur egun lehen hezkuntzako irakasleek ahalegin handia egin behar dutela ikus-arteetako plano tekniko eta formaleko gabeziak gainditzeko.

Plastika eta ikus artearen kasuan heziketa espezifikoa jasotzea oso aproposa izan arren, beharrezkoa da hausnarketarako faktore bat sartzea: Heziketa artistikoak, gaur egun ulertzen den moduan, eta lehen hezkuntzan bereziki, gainditu egiten du ekoizpen hutseko dimentsioa; hala, hizkuntza eta teknika-tresnak irakasteak ekintza artistikoen dimentsio kultural eta sozialean barneratzen laguntzen du. Ikuspuntu honetatik, ikasgelan curriculumeko eduki gehienak garatzen dituen irakaslea egoera bikainean egoten da ekintza artistikoen eta ikasleen esperientzia estetikoak era naturalean ulertarazteko.

Arlo honek lehen hezkuntzan dituen ezaugarriak aztertzerakoan kontuan izan beharreko beste ardatz bat honakoa dugu: sei urteko aro honetan, ikasleek oso aldaketa garrantzitsuak izaten dituzte irudiak, marrazkiak eta abar ekoizteko orduan, dela erabiltzaile bezala, dela hartzaile bezala. Ekoizle diren aldetik, gozamen ludikotik utzikeriara igarotzen dira, eta erabiltzaile diren aldetik, hazkunde esponentziala izaten dute, askotan guztiz akritikoa. Kontuan izan behar da aldaketa horiek eragiten dituzten faktoreak ingurune sozialarekin lotuta egoten direla neurri handi batean (modak, komunikabideetako eta gizarteko arte helduaren irizpide estetiko bisualak, etab.). Beste arlo batzuek ez bezala, irudiek -artistikoak izan edo ez- ikasleen bizitza osoan eragiten dute, emozioak, nortasuna edota sozializazioa bezalako arlo garrantzitsuetan.



Aipatutakoak zaintza berezi bat eskatzen du, ikasleak, haurtzarotik aurrenerabegarora igarotzean, ez dezan bere erreferente estetiko bisualen eta eskolan jasotakoen artean distortsiorik jasan. Kontuan izan behar da ikaslearentzat gero eta garrantzitsuagoak izango direla bere erreferente estetiko bisualak, nahiz eta eskolak, sarritan, ukatu egiten dituen. Ikasleari bizi duen kultura ulertzen lagundu behar dio eskolak, eta elkarren artean harremanetan egoten, ikasleak irizpide baliagarriak lantzeko eta bere sen kritikoa garatzeko. Aldi berean, haurraren ekoizpen-arloa ere arretaz zaindu beharrekoa da; beraz, haurrari beharrezko baliabideak luzatu beharko zaizkio ez dezan arlo hori etapa honetan albo batera utzi.



GAITASUNAK

Lehen hezkuntzaren ezaugarriek erritmo, enfasi eta lehentasun zehatz batzuk finkatzen dituzte hezkuntza artistiko zabal, aberats eta konplexuan barna egin daitezkeen ibilbideetan.

Hezkuntza artistiko egokiak, sentikortasun estetikoa sortzeko eta espiritu kritikoa lantzeko funtsezkoa izateaz gain, gizabanakoen garapen motorra, kognitiboa eta emozionala bultzatzen du, eta baliagarria izaten da autoestimua lantzeko. Horrez gain, garapen ekonomiko soziala belaunaldi berriei eskatzen ari den sormenaren oinarrietako bat da.

Adierazpen kultural eta artistikoa funtsezkoa da pertsona guztientzat, bai ikaskuntza-prozesuetan -ezagutzak eta trebetasunak jasotzeko-, bereziki ikaskuntza goiztiarrean, bai bizitzan zehar jasotzen den heziketa iraunkor aberasgarrian.

Etapan honetan bereziki garrantzitsuak dira ekoizpen eta hausnarketa-dimentsioak, ikaslea urte erabakigarriak igarotzen ari baita.

Ekoizpen-dimentsioari dagokionez, helburu nagusia izango litzateke etapa honen amaieran marrazkiak egitea oraindik ere jarduera atsegina izatea ikaslearentzat. Baina ez zentzu ludikoan bakarrik; ikasleek ikusi beharko lukete gizakiok komunikatzeko eta adierazteko dauzkagun baliabide ugarien sorta dela marrazteko ahalmena, eta ez duela zertan nerabegarora mugatu, marrazteko ahalmenak ez baitu pertsona gutxi batzuen ondare izan beharrik.

Jeinuen edo artista mitikoen ideiak, bestalde, ez du gehiegi lagundu arteak modu arruntagoan eta naturalagoan erabiltzeko. Hori dela-eta, ikasleei ulertarazi behar diegu helduaroan ere mezuak sortzen jarrai dezaketela, batez ere teknologiari esker (argazkigintza digitala, bideoa, web orriak, etab.): mezu eguneratuak, eguneroko bizitzan errotuak, hurbilak... Azken finean, ikasleek arteari zentzua eman diezaioten beren bizitzan.

Hausnarketa-dimentsioari dagokionez, arteak -masen ekoizpenetako informazio bisualak bezala- garrantzi itzela duenez bai aisian, bai pertsonen



bizitzan, beharrezkoa da ikasgelan lehen hezkuntzatik bertatik aztertzea. Ondorioz, hurrengo arloei buruzko hausnarketak bultzatu behar dira: esperientzia estetikoak sentitu eta ekoizteko beharra, kultura ezberdinek arlo honen inguruan garatutako irizpide, ideia eta tresnak, euren funtzio sozialak, eta gure bizitzetan eta gainontzekoenetan duten esanahia.

Ekoizpen eta hausnarketa-dimentsioak elkarrekin landu eta ulertu behar dira.

Hori dela-eta, hezkuntza artistikoa, gaur egun ulertzen den bezala, oso eraginkorra da hurrengoak bezalako gaitasunak lantzeko: ikasleei, eskolan zein eskolatik kanpo, baliabide ugariarekin harremanetan jartzeko aukera handitzeko; funtzio kognitiboak hobetzeko -bereziki, mundu bisualerako baliagarrien direnak-; kultur eta nortasun-kontzientziak sustatzeko -ikasleek aniztasun kulturala hobeto ulertu eta onartu ahal izateko, integrazio soziala errazte aldera-; hazkunde pertsonalerako aukera izateko (mugitzeko trebetasunak, norberaren ezagutza, taldean lan egiteko gaitasunak, etab.); sintetizatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna garatzeko; ideia berriak sortzeko gaitasuna handitzeko (sormena eta irudimena), eta taldean lan egiteko ahalmena hobetzeko.

Ikus dezakezuen bezala, asko dira arte plastiko eta bisualen bidez gara daitezkeen gaitasunak. Jarraian, etapa honetarako proposamenak bildu ditugu.

ARLOKO GAITASUNAK

1. Artearen eta irudien funtzioak zein aukerak ulertzea, ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatu eta adierazteko.
2. Irudi eta ekoizpen artistikoak erabiltzea sentimenduak, ideiak eta bizipenak adierazi eta komunikatzeko.
3. Gertaera artistikoei buruzko ezagutzak eta gogoetak eguneroko bizitzako egoeren eta objektuen ezaugarriak esanguratsuenen behaketan aplikatzea, eta baita artearen zein kulturaren agerpenei ere, pertsonalki zein estetikoki aberasteko.
4. Inguru sozialean, errealean eta birtualean objektuen, gertaeren zein prozesuen ezaugarri estetikoak kritikoki analizatu eta interpretatzea, esperientzia afektiboak, kognitiboak zein sozialak garatzeko eta bizitza sozialean parte-hartzea sustatzeko.
5. Irudien garrantzia -inguru artistikokoak izan edo ez- ulertzea, munduan diren balio eta ikuspegiaren aurrean jarrera kritikoa izateko.
6. Euskarri eta prozedura artistiko desberdinak erabiltzea: bi dimentsiokoak, hiru dimentsiokoak edota ikus-entzunezkoak -teknologietan oinarrituak egon edo ez-, hainbat mezu sartzeko.
7. Modu kooperatiboan, ekoizpen artistikoak lantzea eta proiektuak garatzea, bai ikasgelako pertsonekin, bai kanpoko eragileekin. Azken produktua prestatzeko, bakoitzak bere papera jokatu du, baina elkarren osagarri izango dira guztiak; horrela, elkarbizitza demokratikorako egokiak diren jarrerak garatuko dira.
8. Nork bere ekoizpen artistikoetan konfiantza izatea, horiek egiten gozatzea eta egilearen zein taldearen onerako egiten duen ekarpena baloratzea. Helburua autoestimua indartzea litzateke.
9. Komunikabideek eta hedabideek adierazmenerako eta estetikarako eskaintzen dituzten aukerak aitortzea, horiek era egokian erabili ahal izateko.
10. Irudia eta soinua komunikabideetan zein hedabideetan erabiltzeak duen garrantzia ulertzea, interes espresiboa zein estetikoak duten elementuak modu kritikoan analizatuta. Helburua, mezuaren asmoa zehaztea izango litzateke.
11. Ekintza artistikoa gizarterako ekoizpen kulturalaren zati gisa ulertzea, kultur nortasun propioa osatzeko eta beste taldeen nortasuna aitortzeko.



EDUKIAK

Lehen hezkuntzako Hezkuntza Artistikoaren edukiak definitzerako orduan, hezkuntzako maila ezberdinetan egindako lanari koherentzia eta jarraipena emango dioten alderdiak hartu behar ditugu kontuan.

Alde batetik, Hezkuntza Artistikoaren aztergaia bera izan behar dugu kontuan:

- Arte bisualak eta ondare kultural tradizionala zein garaikidea.
- Kultura edo mundu bisuala, ez bereziki artistikoa.

Bestalde, materiaren oinarri teorikoaren ondorioz, eta Europan barna curriculumerako egin diren proposamen gehienekin bat etorriz, modu orekatuan landu beharko ditugu ekintza artistikoei eta ikusizko kulturari aurre egiteko ditugun bi erak:

- Ekoizpen-dimentsioa: Irudien, soinuaren, mugimenduaren eta abarren bidez adieraztea, sortzea, komunikatzea...
- Dimentsio erreflexibo edo kritikoa: Kultura bisualeko ekoizpenak - artearen mundukoak izan edo ez- ezagutzea, behatzea, aztertzea, interpretatzea...

Arlo honetako aztergaia aintzat hartuta eta hori lantzeko planteamenduari jarraituta, hizkuntzaren baliabideak eta ikusizko arteen baliabide tekniko zein prozesuzkoak erabili behar dira, erabat beharrezkoak baitira bi dimentsioak lantzeko, hau da, ekoizpen-dimentsioa eta gogoeta-dimentsioa.

Lanerako gune horiek guztiek sare zabal bat osatzen dute, eta bertatik igarotzen da ikaskuntza-irakaskuntza prozesua, behar bakoitzarentzat egokiena den modua aukeratuta.

Hainbat egilek aztertu izan dute irakaskuntzaren antolakuntzaren arazoa, edukiak zehaztasunez aztertuta (Efland, 1995*). Eflanden aburuz, artea bezalako ikasgaien ezaugarri nagusia ondokoa da: ez daukatela egitura itxirik,



baizik eta ideien zein edukien sare zabal bat osatzen dutela, hainbat ikuspuntutatik azter daitekeena.

Edukiak egituratzeko moduak aldatzen joan dira, eta unean uneko hezkuntza artistikoarekin bat zetozen ikuspuntuak izaten saiatu.

Dokumentu honetan, aurreko proposamenetan oso gutxi landu diren lan-espazioak irekiko dituzten edukiak sortzea proposatzen dugu. Dena den, aurreko proposamenetan jasotako batzuk ere bildu ditugu, beharrezkoak iruditzen zaizkigulako estetikoki hezita dagoen pertsona baten trebetasunak, ahalmenak eta gaitasunak garatzeko.

Hori dela-eta, arlo honetan garatuko ditugun **edukien** blokeak, ondoko eremuei erantzunak ematen saiatuko dira:

- **arteen eta ikusizko kulturaren funtzio espresiboei, komunikatiboei eta narratiboei** buruzkoak, eta horiek kritikoki ulertzea hurbiltzen direnak;
- **hizkuntza plastikoaren eta ikusizkoaren** baliabideak lantzen dituztenak;
- **artean eta ikusizko kulturaren sortzeko prozedurak eta teknikak** lantzen dituztenak.

Edukien hiru bloke handi horiek harreman estua daukate elkarren artean, eta, esan bezala, curriculum proiektuen eta diseinatzen diren programazioen arabera, oso talde ezberdinak osa ditzakete.

Esan beharra dago blokeak irakasleei etapa horretan landu beharreko informazioa ematen dieten edukiak direla. Horietan, aurrez finkaturiko gaitasunak lortzeko egokienak diren edukiak jasotzen dira. Lehen hezkuntzan, arteari eta ekoizpenari buruzko ideia sortzera bideratutako edukiak lantzea aholkatzen da.



Bloke horiek ez dute gai-zerrenda bat osatzen; ez dira isolatuta hartuta zentzua daukaten unitateak. Irakasleek erabakiko dute ziklotan nola banatu, eta euren esku egongo da programazioa lantzeko dagokion aukera egitea.

Bloke bakoitzean hiru eduki mota desberdintzen dira: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Eduki mota horiek ezin dira banatuta landu. Ez du zentzurik bakoitzerako jarduera desberdinak programatzeak, hirurak landu beharko baitira ikasleen gaitasunak garatzeko.

Azkenik, esan behar da edukiak aurkezteko ordenak ez duela elkarren arteko lehentasunik adierazten.

1. blokea. Arteen eta ikusizko kulturaren funtzioak eta erabilera espresiboak, komunikatiboak zein narratiboak		
KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Irudien bidez ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko zein komunikatzeko beharra.</p> <p>Irudi edo objektu artistiko bat egitean sortzen diren arazoak eta gure kulturaren edo beste batzuetan emandako irtenbideak: hirugarren dimentsioa, mugimendua, denbora...</p> <p>Irudiei esleitutako funtzioak: adierazpenekoa, informatiboa, pedagogikoa, limurtzailea...</p> <p>Artearen eta irudien funtzioak zein erabilera mediatizatzen dituzten faktore sozial eta kulturalak.</p>	<p>Irudiak eta beste adierazpen artistiko batzuk erabiltzeko beharra norberaren esperientzian.</p> <p>Ekoizle gisa, irudi bat egiteko orduan sortutako arazoen eta zalantzen analisia.</p> <p>Bere esperientziaren eta kultura zein denbora ezberdinetako esperientziaren arteko erlazioak, errepresentaziorako irtenbideak eta estrategiak aitortzeko.</p> <p>Irudien eta objektu artistikoen analisi konparatiboa, analogia eta ezberdintasunak bilatzea, eta erlazioak antzematea.</p> <p>Irudiek une historiko ezberdinetan izandako erabilpen eta esanahi ugarien inguruan eztabaidatzea.</p> <p>Adierazpen artistikoak aldatzeko beharra kritikoki argudiatzea.</p> <p>Esanahiak proposatzea eta euren lanari buruzko baieztapenak egitea.</p> <p>Artearekin edo ikusizko kulturarekin zerikusia duten albisteak irakurri eta eztabaidatzea.</p> <p>Ekintza artistikoak modu aberasgarriagoan ulertzeko, museoetara, erakusketetara eta antzezpen dramatiko zein musikaletara joatea.</p>	<p>Artearen eta kultura bisualaren adierazpenen asmoa, helburua eta funtzioak baloratzea.</p> <p>Irudiak sortzeko prozesuetan eta joera artistikoetan ikertzeko gaitasuna eta irtenbide berriak bilatzea.</p> <p>Irudiak eta adierazpen artistikoak aztertu eta baloratzean jarrera irekia eta malgua izatea.</p> <p>Espazio eta denbora ezberdinetako irudi eta objektu artistikoak ezagutu eta ulertzeko interesa izatea, eta hainbat faktore biltzen dituzten osotasun gisa baloratzea.</p> <p>Publizitatean, interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideetako beste produktu batzuetan erabilitako irudiak kritikoki baloratzea.</p> <p>Adierazpen artistikoak norberaren nortasunaren ezagutzeko iturri direla ulertzeko interesa eta jakin-mina izatea.</p> <p>Norberaren zein besteen esperientzia estetikoarekiko sentsibilitatea eta errespetua agertzea.</p> <p>Norberaren gustuekin zerikusirik ez daukaten ekoizpenekiko tolerante izatea.</p> <p>Historian zehar izan diren adierazpen artistiko anitzekiko sentsibilitatea agertzea.</p>

2. blokea. Hizkuntza plastiko eta bisuala

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Hizkuntza plastikoaren oinarrizko elementu formalak: itxura, kolorea eta ehundura.</p> <p>Hizkuntza plastiko eta bisualeko elementu formal egituratzaileak: oinarrizko elementuen osaketa eta elkarren arteko harremanak.</p> <p>Espazioa, elementu plastiko gisa.</p> <p>Formen arteko harremanak.</p> <p>Espazioaren eta denboraren arteko harremanak.</p>	<p>Hizkuntza plastiko eta bisualaren berezko erabilpena.</p> <p>Bizigarrien aurrean erantzutea eta informazio plastiko zein bisualak intuizioz interpretatzea.</p> <p>Errealitatea zentzumenen bidez ulertu eta arakatzea.</p> <p>Norberaren asmoei ondoen egokitzen zaien ondorioa lortzeko, elementu eta baliabideak sistematikoki aldatzea.</p> <p>Hizkuntzaren elementu formalek adierazpen eta komunikaziorako eskaintzen dituzten aukera ugariak arakatu eta erabiltzea.</p> <p>Hizkuntza plastiko eta bisualeko elementu formalak antzematea eta interpretatzea.</p> <p>Irudiak eraldaketa grafiko-plastikoetatik abiatuta birlantzea.</p> <p>Ekoizpen plastiko eta bisualak era pertsonal eta sortzailean egitea.</p> <p>Ingurua behatzea eta analisi formala egitea, loturak ezarriz.</p> <p>Espazioarekin eta denborarekin lotutako faktore naturalak eta eguneroko gertakariak plastikoki interpretatzea.</p> <p>Inguruko ehundura, kolore eta formen propietateak, funtzioak eta eraldatzeko aukerak behatu eta azaltzea.</p>	<p>Hizkuntza plastiko eta bisuala sentimenduak, bizipenak eta ideiak era irudimentsu, pertsonal eta autonomoan adierazteko erabiltzea.</p> <p>Norberak adierazteko dituen aukerak baloratzea, inhibizio ezean eta naturaltasunean oinarritutako jarrerak hartuta.</p> <p>Hizkuntza plastiko eta bisualeko elementuak antolatu eta erabiltzeko modu berriak esperimentatzeko gogoia piztea.</p> <p>Ekoizpenak egiterakoan, norberaren aukerak gainditzeko prest egotea.</p> <p>Beste pertsona batzuen iritzi eta lanak errespetatzea eta haiekiko interesa agertzea, bakoitzaren ezagutza prozesuko osagai bezala.</p>

3. blokea. Sortzeko prozedurak eta teknikak

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Irudi finkoa adierazteko bitartekoak: marrazkia, pintura, modelatua, argazkia...</p> <p>Integratutako hizkuntzak adierazteko bitartekoak: komikia, aurkezpenak, web orriak...</p> <p>Irudi mugikorra adierazteko bitartekoak: zinema, bideoa, telebista, sakelako telefonoak...</p> <p>Bi eta hiru dimentsioko material, tresna eta euskarriak.</p> <p>Lantze-prozesuko faseak: planifikazioa, errealizazioa eta balorazioa.</p> <p>Hizkuntza integratuak erabiltzeko aukerak.</p>	<p>Produktu artistiko zehatz bat egiteko materialak, teknikak eta tresnak aukeratu eta erabiltzea.</p> <p>Materialak, tresnak eta gailuak erabiltzea, adierazpenerako dauzkaten ezaugarriak eta errendimendua ezagutzeko.</p> <p>Irudiak eta proiektu artistikoak egiteko prozesuak taldeka antolatzea eta garatzea.</p> <p>Taldekako lanean ardurak antolatu eta banatzea.</p> <p>Teknologia berriak komunikatzeko eta adierazteko erabiltzea.</p> <p>Materialak, tresnak, euskarriak eta abar adierazteko, komunikatzeko, estetikarako eta abar erabiltzea.</p> <p>Berezko ekimena materialak eta teknikak erabiltzeko aprobetxatzea, sormenezko eta jatorrizko ideiak sustatuz.</p>	<p>Taldeko lana baloratzea, arauak errespetatuz eta bakoitzari esleitutako papera betez.</p> <p>Tresnak, materialak eta espazioak erabili zein zaintzeko arauak betetzea, eta lana ondo egin nahi izatea.</p> <p>Teknika eta material artistikoak erabiltzean jarrera kritikoa sustatzea.</p> <p>Norberak artelanak egiteko daukan ahalmenean konfiantza izatea, eta bere zein besteen ekoizpenak aintzat hartzea.</p> <p>Ikasgelan ordena eta garbitasuna baloratzea.</p> <p>Materialak, tresnak eta euskarriak erabiltzeko jakin-mina izatea.</p> <p>Arazoak konpontzeko prest egotea.</p>



EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluatzeke irizpideek bat etorri beharko lukete arloari buruz aurrez emaniko ikuskerarekin. Ikuskera horrek pertsonak arteari eta ikusizko kulturari aurre egiteko bi moduak biltzen ditu: batetik, irudien eta objektu artistikoen hartzaileei, kontsumitzaileei... erreferentzia egiten dietenak, eta, bestetik, horiek eragile produzitzaile gisa kokatzen dituztenak.

Aurretik esan bezala, espresioari, sortzeari, komunikazioari, erabilerari... lotutako alderdiak bilduko lituzkeen produkzio dimentsioa gogoeta zein kritika egiteko dimentsio gisa kontsideratu beharko litzateke. Dimentsio hau ezagutza, behaketa, analisia, azalpenak, interpretazioa... bezalako alderdietan oinarrituko litzateke.

Era berean, aurretik aipatutako arlo honetako planteamenduak kontuan izanda, garrantzitsua da praktika artistikoa banakako gertaera gisa ulertzen duten ebaluaziorako iraganeko kontzepzioak gainditzea. Banakako gertaera hori "jeinu artistikoa"ren begirada mitikoari lotua dago, eta berak bakarrik egiten dio aurre bere "lana"ri. Interpretazioa beste pertsonen esku uzten du. Ikasleak lanak arrazontzeko, analizatzeko, beste produktuekin erlazionatzeko eta abarretarako gai izan behar du, eta aurkezten zaizkion arazoen aurrean irtenbideak aukeratzen jakin behar du. Horrek guztiak ebaluazioaren objektu izan behar du, ez azken produktua soilik.

Ebaluazioa ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan integratu behar da, eta, hori dela eta, ez da azken emaitzetan soilik oinarritu behar. Irakasleei zein ikasleei informazioa eman behar die aurkituko dituzten zailtasunak eta horiei zer erantzun eman azalduta. Helburua lana aldatzea eta praktika hobetzea da.

Arlo honetan, planteamendu praktikoz betetako oinordekotzarekin, beharrezkoa da prozesu erreflexiboetan zentratuagoak dauden proposamen metodologikoei eta ebaluazioari zuzenean eragiten dietenei erreferentzia egitea; hala nola:



-Ikasleek ideiak azaltzeko, planteatutako gaitasunak martxan jartzeko eta egoera berrietan lortutako ezagutzak transmititzeko proiektuak prestatzea. Proiektuak eguneroko bizitzako gaietatik, arazo artistiko jakinetatik edota beste arloetako edukiei lotutako gaietatik sor daitezke. Bestalde, horrek diziplinen arteko proposamenak egiteko aukera irekitzen du.

-Ikasleek lan-prozesurako materialak jasotzeko paper-zorroa edota karpeta bezalako erremintak erabiltzea: zirriborroak, erabilitako ikusizko erreferentziak edota beste mota batekoak, gogoetak, ideiak... Tresna hau bereziki erabilgarria da ikaslea bere kabuz ikasten duenaz jabetzeko eta arlo honetako ezagutza finkatzeko. Gainera, ariketa mota horiei esker, ikasleek esfortzu kognitiboa eta autoestimua erantzat garapen esfortzua lantzen dute.

-Edukiei lotutako irudien errepertorio zabala eta aberatsa sistematikoki erabiltzea, baita gogoeta eta eztabaida egiten laguntzen duten testuak eta beste dokumentu mota batzuk ere. Eztabaida eta gogoetarako gune hauei esker, ikasleek partekatutako ezagutza eraikitzen dute, hainbat begiradatan eta irizpidetan oinarrituta.

Iradokizun metodologiko horiek inplizituki daramate ikasleen ikaskuntzari eta irakasleen parte-hartzeari lotutako ebaluazioaren prozesu iraunkorrari buruzko ideia.

Jarraian, arlo honetarako zehaztutako gaitasunei lotuta, ebaluaziorako irizpideak adierazten dira.

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1. Oro har, artearen eta irudien funtzioak eta aukerak ulertzea, ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko.	<p>Irudi edo ekoizpen artistikoak testuinguru eta egoera ezberdinetan interpretatzea.</p> <p>Artearen eta irudiaren funtzioei buruzko galderak edo arazoak formulatzea.</p>
2. Irudi eta ekoizpen artistikoak erabiltzea sentimenduak, ideiak eta bizipenak adierazi eta komunikatzeko.	<p>Bere ideiak, bizipenak, behaketak... ekoizpen artistikoetan islatzea.</p> <p>Baliabide ezberdinen aukerak aztertzea adierazpen eta komunikazio behar ezberdinak islatzeko.</p>
3. Gertaera artistikoei buruzko ezagutzak eta gogoetak eguneroko errealitateko egoeren eta objektuen ezaugarriak esanguratsuenen behaketari eta eguneroko errealitateko eta artearen zein kulturaren hainbat manifestazioko objektuei aplikatu, aberastasun pertsonala eta estetikoak lortzeko.	<p>Errealitatea eta irudiak beraien plastika eta ikus aberastasun osoan behatzeko jarrera eta jakin-mina azaltzea.</p> <p>Errealitatea eta irudiak beraien plastika eta ikus aberastasun osoan behatzeko jarrera eta jakin-mina azaltzea.</p> <p>Plastika eta ikus elementu ezberdinen artean erlazioak ezartzen ditu bere gertuko eremu natural eta ikonikoan.</p> <p>Arte eta kultura adierazpen ezberdinetako planteamendu eta arazoen inguruko galderak egitea.</p>
4. Inguru sozialean, benetakoan eta birtualean objektuen, gertaeren eta prozesuen ezaugarri estetikoak kritikoki analizatu eta interpretatu, esperientzia afektiboak, kognitiboak eta sozialak garatzeko zein bizitza sozialean parte-hartzea sustatzeko.	<p>Bere inguru hurbileko irudien balio plastikoak, funtzio sozialak eta esanahi kulturalak bereiztea eta erlazionatzea.</p> <p>Bere ondare kulturalako eta beste herrialde batzuetako adierazpen artistiko ezberdinak ezagutzea eta aintzat hartzea.</p> <p>Irudi edo produktu artistiko mota ezberdinen arteko erlazioak ezartzen ditu beraien funtzionaltasun sozial eta kulturaren arabera.</p>
5. Inguru artistikokoak diren edota ez diren irudien garrantzia ulertzea, munduari buruzko balioen zein ikuspuntuen osagarri gisa, horien aurrean jarrera kritikoa	Testuinguru eta jatorri ezberdineko irudi eta lan artistikoen intenzionalitateak bereiztea.

izateko.	Egiten dituen interpretazio eta analisiak arrazoitzea.
6. Euskarri eta prozedura artistiko desberdinak erabili: bi dimentsiokoak, hiru dimentsiokoak edota ikus-entzunezkoak (teknologietan euskarrituak edo ez), hainbat mezu sartzeko.	<p>Oinarrizko teknika artistiko eta prozedurak ezagutzea, teknologia bidezkoak edo ez, bere adierazpen eta komunikazio helburu eta beharrak arrakastaz garatzeko.</p> <p>Proposatutako adierazpen edo komunikazio helburuari dagokion euskarri, prozedura eta teknika egokia erabiltzea.</p> <p>Garatzen ari den proiektuaren helburuari dagokion plastika eta ikus hizkuntza baliabideak erabiltzea.</p> <p>Material eta tresna ezberdinak aztertzea bere proiektu bat edo talde-proiektu bat garatzeko.</p> <p>Lan indibidualak edo talde-lanak proiektu erreflexibo baten arabera garatzea.</p>
7. Produkzio artistikoak egitea eta, modu kooperatiboan, proiektuak garatzea ikasgelako pertsonekin zein kanpoko eragileekin. Horrek guztiak, elkarbizitza demokratikoa izateko egokiak diren jarreraren garapena eta pertsonen sozializazio egokia sustatzeko, azken produktuaren elaborazioan rol desberdinak eta osagarriak izatea ekartzen du.	<p>Berak zein besteek egindako lan eta ekarpenak errespetatzea.</p> <p>Bere lan artistikoko arazoak konpontzeko orduan bilaketa pertsonal eta kolektiboko jarrera izatea pertzepzioa, ikerketa eta sentikortasuna artikulatuz.</p> <p>Taldean bere lana hartzea eta lan horretaz arduratzea.</p> <p>Errespetatu materialak eta erremintak, banakako nahiz taldekako erabilerakoak, eta zaindu horien mantenimendua eta garbitasuna.</p>
8. Norbere elaborazio artistikoetan konfiantza izatea, horiek egiterakoan gozatzea eta hazkuntza pertsonalari eta taldekoari egiten dizkieten ekarpenak apreziatzea. Helburua autoestimua baieztatzea da.	<p>Ideiak, ekintzak, bizipenak... inhibizio gabe adieraztea era pertsonalean eta sormena azalduz.</p> <p>Taldeko arazoak konpontzeari ideia pertsonalak eman.</p> <p>Inguruan eta produkzio artistikoetan, asmo espresiboekin eta komunikatiboekin konektatzen diren erreferenteak eta ideiak</p>

	bilatu.
9. Komunikazio- eta informazio-baliabideen aukera espresiboak eta estetikoak aitortzea, horiek era egokian erabili ahal izateko.	<p>Inguruko mezu bisualak identifikatzea.</p> <p>Ikusizko kulturaren eremu komunikatiboen artean konexioak ezarri (komikia, zinema, diseinua, artea...).</p> <p>Ikus-entzunezko bitarteko ezberdinetako elementuak erabiltzea adierazpen edo komunikazio helburu batekin.</p>
10. Irudiaren eta soinuaren garrantzia eta horiek komunikazio- zein informazio-baliabideetan duten erabilera ulertzea, interes espresiboa zein estetikoa duten elementuak modu kritikoan analizatuta. Helburua mezuaren asmoa zehaztea da.	<p>Jasotzen dituen mezu bisualen helburuak identifikatzea.</p> <p>Produktu mediatiko zehatz bati zentzua ematen dioten plastika eta ikus baliabideen erabilpena interpretatzea eta arrazoitzea.</p>
11. Ekintza artistikoa gizarte baten kultur produkzioaren zati gisa ulertzea, kultur nortasun propioa osatzeko eta beste taldeen nortasuna aitortzeko.	<p>Ekintza artistiko ezberdinak gizarte edo une historiko jakin batekoak direla identifikatzea.</p> <p>Ekoizpen artistikoen arteko ezberdintasunak antzematea, interpretatzea, eta elementu kultural, sozial eta historikoekin erlazionatzea.</p>



BIGARREN HEZKUNTZA



Sarrera

Irekitzera doan epealdi berrian heziketa artistikoaren arloko curriculuma osatzen duten elementuak aurkeztu baino lehen, beharrezkoa da azken hamarkadotan arlo horretan gertatzen ari diren funtsezko aldaketei aipamena egitea.

Aldaketa horiek, beste diziplinetan eta ezagutza-arloetan gertatu den bezala, honako zioengatik gertatu dira: gizarteak gogoeta egin duelako hezkuntzari esleitzen dizkion funtzioei buruz, bai eta haurtzaroari eta nerabezaroari buruzko kontzepzioen gainean ere, aldaketa sozial zein politiko sakonak eman direlako, eraldatu egin delako ikaskuntza begiratzeko modua, etab. Baina, gure arloan, gainera, harreman zuzena dute praktika artistikoak konfiguratzeke modu berriarekin; praktika hauek gero eta muga ahulagoak dauzkate, eta neurri batean teknologia berriek sustatutako baliabideen, euskarrien, kontzepzioen eta planteamenduen garapen esponentziala agertzen dute. Barnean hartzen dituen testuinguru kulturalak eraldaketa handiak izan ditu, hein handi batean informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten garapenagatik, baina baita beste hainbat faktorerengatik ere, hala nola kulturen eraginaren aniztasun eta aberastasuna, edota aisia igarotzeko modua, oso garrantzitsua bihurtu dena merkatuan. Testuinguru honetan, maila handiko kultura artistikoak esangura berezia hartzen du, baina, gainera, kontsumitzen ditugun objektu eta irudi gehienak gero eta itxura estetiko zainduagoarekin aurkezten zaizkigu. Era guztietako erreferentzia estetikoak dituen gizartean bizi gara, instituzio artistikoek iraganean arte gisa definitutakoak izan ala ez.

Hala, honakoak dira heziketa artistikoa eskolan emateko erabili izan diren arrazoiak: XXI. mendeko lehen hamarkada honetan, sormenaren, irudimenaren, garapen eragilearen, sentsibilitate estetikoaren zein gorputzaren espresioaren garapena bezalakoak nabarmentzen dira. Europako herrialderik aurreratuenetako heziketa-proposamen guztiek jasotzen dute heziketa artistiko egoki batek daukan papera ez sentsibilitate estetikoan soilik, baita subjektuen erabateko heziketan ere, inguru ekonomikoetan eta politikoetan duten eragina kontuan izanda.



Alaskako Southeast Juneau Unibertsitateko Teknologia Hezitzailearen Programako zuzendari Jason Ohler-ek dioenez, sareko giro multimediak eta ordenagailuen bidez esperimentatutako gehienak beharrezkoa egiten dute ikasleek pentsatzea eta ikasle horiek diseinatzaile zein artista gisa komunikatzea. Era berean, gaineratzen du ikasleek web orriak ikasgelako proiektu gisa diseinatzen dituzten eta aurkezpenetan bideoa, grafikoak eta animazioa integratzen dituzten aro honetako bizitzeko eta lan egiteko moduan jasandako aldaketek artea gure garaiko alfabetismo berri bilakatzen dutela. Errealitate teknologiko berriak ulertarazten digu eguneroko ikusizko informazioaren manipulazioak (helburu artistikoekin ala ez) artean beharrezkoak direnak baino gertuagoko pentsamendu gaitasunak sortzen dituela eta gaitasun horien beharra daukala. Egileak dio artea (aRt) oinarrizko laugarren gaitasun gisa kontsideratu behar dela aro digitaleko gizakien heziketan: aurreko 3 Rak bezain garrantzitsua da honakoa hau ere (Reading, w'Riting, a'Rithmetic – irakurketa, idazketa eta aritmetika).

Ezin da zalantzan jarri heziketa artistikoaren dimentsio honek daukan garrantzia; izan ere, ikasleei gizarteak eskatzen dituen sortzeko eta ikusizko pentsamendua izateko gaitasuna ematen die. Baita gizartearen estimuluen aurrean erantzun propioak emateko ere. Gaur egun, gizarte honetako gizaki gehienak artearen eta irudiaren kontsumitzaile izatera mugatzen dira. Ikaslea sormenarekin estimulatzea ez da baliabide propioen erabilera naturala sustatzea soilik, baizik eta pertzepzioko eta espresioiko gaitasun handiagoa emango dioten eta helburu desberdineko hainbat egoeratan sormena eta komunikazio artistikoa sustatuko duten bitartekoak eskaintzea ere bada.

Hezkuntzako aurreko erreformen proposamenek ikusten zuten jada behar hori; izan ere, irudiak gure bizitzan daukan garrantzia gero eta handiagoa nabarmena da. Hala, artearen bidez espresioa ziurtatzen zuten alderdi teknikoek eta prozesuzkoek gain, curriculumean gizartearen sortzen ari zen produktu estetikoek gero eta aukera zabalagoa jasotzen zuten, arlo hauetako lan-objektu gisa: komikia, zinema, publizitatea... Artearen analisi formalerako



eta teknikorako (ia eskusiboki) erremintak horietara hedatzen ziren, interpretatzeko eta sortzeko gizakien gaitasunaren mesedetan.

Une honetan esan dezakegu aldaketen eragina hezkuntza artistikoa jasaten ari dela, eta artearen antzekoak diren edota artekoak bezala lan daitezkeen produktuen zirkuluan une honetako teknologien (Internet, etab.) inklusiotik eratorritakoa baino handiagoa dela. Paul Duncum-en ustean, agertzen ari diren aldaketak edukiari baino ikuspuntuari lotuagoak daude. Gaur egun arte, nahiz eta aztertzen ziren irudi mota eta aukera handitzen saiatu, arte ederrak erreferentzia izaten jarraitzen zuten, eta ikusizko interesa zuten eremuetarako (arte herrikoiak, produktu mediatikoak...) hedapenak entzumenezko terminoetan egiten ziren.

Hau da, gaur egun produktu estetiko ugariarekin hezkuntza artistikoan lan egiteaz gain, (arropetako modatik hasi eta marken logotipoetaraino, haurren aldizkarietatik edota *performancetik* pasatuta...) fokatzean izandako aldaketek ondoko gaiei egiten die bereziki erreferentzia:

- Artekoak diren edota ez diren irudi zein tresna artistikoak euren testuinguru historikoetan, sozialetan eta politikoetan interpretatu eta ulertu behar dira. Ricardo Marínen hitzetan: “Nolako baldintza sozialetan sortu eta hedatu dira? Nola iritsi dira guganaino eta nola eragiten dute gure eguneroko bizitzan?” (Marín, 2002, 50. orr). Formala edota teknikoa denaren mugak gainditzean oinarritzen da, gurekin bizi diren produktu estetikoetako arrazoi sozialetan, ekonomikoetan, boterekoetan sakontzeko.
- Artearen balio estetikoak eta forma tradizionalak erlatibizatu egiten dira; izan ere, kultura zein une historiko jakin bateko kontzepzioekin daukate zerikusia, eta ez lanekin. Hala, artea denboran eta kulturetan aldatzen den eraikuntza sozial gisa ulertzen da. Kultura horiek, ordea, termino antropologikoetan ulertu behar dira, eguneroko esperientziatik gertu daudenetan.



- "Bete-bete harrapatuta gauzkan ikusizko unibertsoak eta unibertso estetikoak oinarritzko rola jokatzen dute nortasunen osatzaile gisa, ez omnipresentziagatik soilik, baita konbentzitzeko duen botere handiagatik ere: kultur praktikei lotzen da (../..), plazerrezko esperientziekin zerikusia dauka (../..) eta sozializazio moduekin erlazionatzen da (../..), eta, gainera, ikusizko unibertsoak begiratzen eta norbera begiratzen irakasten du, eta norberari zein munduari buruzko errepresentazioak eraikitzen laguntzen du." (Hernández, 2002, 52. orr). Hala, ardura saihestea zaila da; izan ere, gure haurren bizipenak erreferente estetiko zein emozionalez beteak daude, eta euren sozializazio prozesuen zati dira.
- Ikusizko kulturaren aurrean ez dago hartzailerik edota irakurlerik, baizik eta eraikitzaileak eta interpretatzaileak daude; izan ere, lanaren aurrean jartzen den subjektua ez da pasiboa, ez eta independentea ere. Subjektu horrek esperientzia propioen arabera jokatzen du.

Ikusten dugun moduan, ikuspuntu aldaketa, modu berezian, hezkuntza artistikoaren tradizioak gainditzean oinarritzen da. Ohitura horien euskarria balio estetikoa eta erabat espresiboa duten objektuen ekoizpena da, arlo hau gure kulturari zein errealitateari buruzko gogoeta egiteko gune bat gehiago izan dadin. Gure kulturako artean eta arteari zein irudiari buruzko gogoeta, elkarrizketa, bilaketa eta jakin-mina sortzea produzitzea bezain garrantzitsua da.

Ikusizko kultura ulertzea eta interpretatzea arlo honetako oinarritzko helburua da. Gure gizartean hainbat bitartekoren bidez —tradizionalak edota teknologia berriak erabilia— sortutako elementu ikonikoen garrantziak, dimentsioak eta indarrak, eta elementu horiek kontsumorako elementu bilakatu izanak ikasleei horiek interpretatzen eta analizatzen irakastea exijitzen du. Ikusizko artearen modu guztiak pertsonen ideien, sinesmenen eta jarreraren adierazpenak direla adierazi behar zaie. Gizakien edota taldeen nortasunak erakusten dituztela, baina, aldi berean, nortasunak osatu ere egiten dituztela (../..) Zer dira proposamen artistikoak horiek egiten, ikusten eta erabiltzen





dituzten izaki sozialen bizitza islatzen ez badute, eta horietan eraginik ez badaukate? (Freedman, 59. orr)

Artearen erabileraren dimentsioa, giza produkzio kulturallean duen lotura behar gisa, bizipenarekin harreman zuzenean, mitifikazioetatik eta esentzialismoetatik harago, ikasgelan landu behar da, artearen eta gizakien bizitzaren artean gure kulturaren instalatutako distantzia handia apurtzeko.

Hala, plastikaren arloa leku pribilegiatuan kokatzen da transdiziplinarietaterako, curriculumeko beste ikasgaiekiko konexio naturalerako, entretenimendu errazetik harago curriculumean sartzeko. Besteen ikuspuntura, munduari buruzko ikuspuntuen dibertsitatera hurbiltzeko aukera ere ematen du. Horiek ikusizko kulturaren produktuetan agertu eta agertzen dira.

Azkenik, esan behar da dimentsio erreflexiboa ez dela produkzioarekiko modu isolatuan edota alternatiboan ulertzen. Ikasleak sortutako artelanak edota lanak beti egon izan dira ikasleak berak jarduera artistikoari buruz duen kontzepzioaren, funtzioen eta bizitzari ematen ari zaion zentzuaren arabera iragaziak, korapilatuak edota oinarrituak. Une horretan, gogoeta horiek ikasgelan esplizituak edota implizituak izan daitezke. Kontzepzio horiek gizartean errotuak daude. Haurrek, artean ere, testuingurutik ikasten dute, ustezko garapen naturaletik harago. Artean heziketa-tradizioak ulertu du sortzea interferentzietatik babestu beharreko banakako prozesua dela, eta, kasu askotan, lanekin eta erreferente helduekin edota adiskideen eraginekin kontaktuan jartzea saihestu du. Hezkuntza artistikoaren egungo ikusmoldeak tradizio hori gainditzearen aldeko apustua egiten du, gaur egun ikasteari buruz dauden planteamenduekin bat eginez. Planteamendu horiek ikuspegi sozialagoa, partekatuagoa, dialogikoagoa... dute.



ARLOAREN EZAUGARRIAK BIGARREN HEZKUNTZAN

Derrigorrezko bigarren hezkuntzan, lehen hezkuntzakoaren egoera guztiz ezberdina aurkitzen dugu hezkuntza artistikoari dagokionez:

- Irakasle espezializatuak.
- Presentzia ezberdindua curriculumean.
- Hausnarketa gaitasun garatuagoko ikasleak, baita beraien bizitzetan oso garrantzitsuak diren bizipen eta esperientzia estetikoak dituztenak.

Irakasle espezializatuak edozein lan eduki edo tamaina garatzeko adina ezagutza artistiko izatea bermatzen dute, lehen hezkuntzan gertatzen ez zena.

Bestalde, bigarren hezkuntzako irakasgaikako zatiketak hezkuntza artistikoak ekoizpen kulturalera beste eremu batzuetan dituen sarrera eta erlazio aberats eta askotariko guztiz beharrezkoak jasotzea zaildu dezake. Izan ere, gaur egungo ekoizpen artistikoaren errealitatean zailtasunak daude plastika eta ikus erregistroak eta hizkuntza idatzi ahozko zein musikalekoak bereizteko, guztiak elkarren artean berez lotuta azaltzen baitira -horrela gertatzen da goi mailako ekoizpen artistikoekin zein produktu mediatikoetan erabiltzen direnekin-.

Ondorioz, arloaren ulermen irekiak begirada holistikoa eskatzen du: baliabide teknikoak edo ikus hezkuntzakoak zein ikasleak bizitzen dituen ekintza kulturalen ulermena beste irakasgai batzuetakoekin batera aztertu eta garatzeko beldurra ez da izan behar -baita arte edo artista ideia bezalako auziak ere-.

Bigarren hezkuntzako ikasleak une bereziki sentikorra bizi dute bere inguruko, aisialdiko, eguneroko bizitzako... objektuetan islatzen diren kezka eta esperientziekiko. Izan ere, horiek beraien nortasunaren egituratzearekin zerikusia dute. Harreman hori ez dagokio ikuspuntu estetikoari bakarrik, objektu horiek esanahiak eta munduari zein beraien buruei buruzko ideiak ere igortzen baitizkiete. Nerabeek pentsamendu kritikoa garatu dezaten eta bizi duten



kultura ulertu dezaten, oso garrantzitsua da beraiek bizitako esperientziak aztertzea. Nerabeen hausnarketa ahalmenak eta duten esperientzia estetiko eta mediatiko zabal eta askotarikoak dimentsio hori bereziki lantzea ahalbideratzen dute.



GAITASUNAK

Bigarren hezkuntzan, hezkuntza artistikoaren ekoizpen-dimentsioa, itxuraz, ahuldu egiten da hausnarketa-dimentsioaren aurrean. Ondorioz, ulermenarekin lotutako gaitasunen garatzea, interpretazio kritikoa, balio kulturalen hautematea, ekintza artistiko edo estetiko ezberdinen artean erlazio konplexuak ezartzeko gaitasuna, eta bakoitzaren esperientzia estetikoaren edota arteak nortasun egituratzaile bezala dituen ahalmenen inguruan hausnartzeko gaitasuna lehen planora igaro behar dira.

Aipatutakoak ikasleen irudimenean argi eta garbi ezberdindutako bi guneren artean zubiak eraikitzea ahalbideratzen du: alde batetik bere mundua eta balore estetikoak, eta bestetik, artea eskolako eta helduen kulturako gune itxi eta urrunekoa bezala. Hala, beharrezkoa da lehen hezkuntzan hasitako bidea jarraituz, arte baliagarri eta hurbilekoaren ideia eraikitzea.

Hori bai, honek ez du esan nahi beste trebakuntza mota batzuk alde batera utzi behar direnik, adibidez ikasleak bere diskurtso plastiko-artistiko propioak garatzeko edota jasotzen dituen produktu bisualei erantzuteko edo horiekin elkarrizketan sartzeko ekoizpen propioak egitekoa. Haurtzaroko dimentsio ludikoa erantzun heldu eta kritiko bihurtzeko pasibotasuna gainditzea, jakin-mina eta bilaketa sustatzea, eta ideien, sentimenduen eta berezko nortasunaren adieraztea ahalbideratzen duten proiektu artistikoen bidez. Era berean, proiektu horiek ikasleak eta gizartean aurki daitezkeen informazio eta komunikazio baliabide guztiak konektatu ditzakete.

Hain zuzen ere, bigarren hezkuntzan ikusten dira argiago jarduera artistikoarekin sortu daitezkeen gaitasunak. Horiek ez dira estetikoak bakarrik eta nazioarteko foroetan aitortuak izaten ari dira interes sakona dutelako:

- Ikasleek eskola barruan zein kanpoan baliabide ugariarekin kontaktuan jartzeko duten ahalmena zabaltzea.
- Funtzio kognitiboak hobetzea (bereziki gero eta garrantzi handiagoa duen mundu bisualarentzat baliagarrienak direnak).



- Kultur eta nortasun kontzientzia sustatzea -herritarrei aniztasun kulturala hobeto ulertu eta onartzeko ahalmena emanaz beharrezko integrazio soziala laguntzeko-.
- Hazkunde pertsonala laguntzea –mugimendu trebetasunak, norberaren ezagutza, taldean lan egiteko gaitasunak... garatuz-.
- Ideia berriak sortzeko ahalmena handitzea (sormena eta irudimena).

Arte plastikoen eta ikusizkoen bidez gara daitezkeen gaitasunak ugariak dira. Jarraian, etapa honetarako proposamenak ageri dira.

ARLOKO GAITASUNAK

1. Inguru naturaleko eta kultureko irudiak eta formak modu kritikoan ulertu eta interpretatu, horien ezaugarri plastikoekiko, estetikoekiko eta funtzionalekiko sentikor agertuta. Helburua arteen esparru orokorra eta horiek mundu garaikidean duten lekua ulertzea eta barneratzea da.
2. Ekintza artistikoa kultur ondarearen zati integratzaile gisa baloratzea, adierazpen artistikoei eta kulturei buruz interesatuta. Helburua, modu aktiboan, artea errespetatzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko ekarpenak egitea da.
3. Euskarri eta prozedura artistiko desberdinak erabili: bi dimentsiokoak, hiru dimentsiokoak edota ikus-entzunezkoak (teknologietan euskarrituak edo ez), hainbat mezu sartzeko.
4. Hizkuntza plastikoak eta ikusizkoak beste hizkuntzekin daukan harremana ulertzea, elkarrekin erlazionatuta eta integratuta. Helburua produkzio artistiko konplexuak proiektatzea eta planifikatzea da.
5. Bakoitzarenaren eta gizartean nagusi direnen ezberdinak diren beste adierazpen estetiko modu batzuk errespetatu eta aintzat hartzea. Gogoeta prozesu kritikoak erabiliko dira ikasleek estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditu ditzaten eta erantzun propioak emateko dituzten erregistroak hedatzeko gai izan daitezten.
6. Beste pertsonekin erlazionatzea eta taldeko jardueretan parte hartzea, ezaugarri pertsonalen edota sozialen ondoriozko inhibizioak eta aurreiritziak gaindituta. Helburua malgutasunean, elkartasunean, interesean eta tolerantzian oinarritutako jarrerak garatzea da.
7. Ikusizko baliabideen eta baliabide plastikoen garrantzia baloratzea, bizipenak, sentimenduak eta ideiak adierazteko bitarteko gisa. Horretarako inhibizioak gainditu behar dira, eta horiek orekari eta ongizate pertsonalari egiten dizkieten ekarpenak ulertu behar dira.
8. Ikusizko baliabideen eta baliabide plastikoen aukerak kontsideratzea, erabiltzea eta baloratzea, egungo kulturaren, irudiaren eta komunikazioaren munduak egiten dituen ekarpenez jabetzeko.



EDUKIAK

Bigarren hezkuntzako Plastika eta Ikus Hezkuntza arloaren edukiak definitzerako orduan, hezkuntza maila ezberdinetan egindako lanari koherentzia eta jarraipena ematea ahalbideratzen diguten eta materiaren oinarritze teorikotik eratorritakoak diren funtsezko alderdiak hartu behar ditugu abiapuntu bezala.

Alde batetik, Plastika eta Ikus Hezkuntzaren berezko ikasketa-gaia izan behar dugu kontuan:

- Ikusizko arteak eta kultur ondare tradizionala zein garaikidea.
- Kultura edota ikusizko mundua, ez bereziki artistikoa.

Bestalde, materia oinarritzearen ondorioz eta Europako testuinguruan izandako curriculum proposamen gehienekin bat, modu orekatuan landu beharko ditugu pertsonok ekintza artistikoei eta ikusizko kulturari aurre egiteko ditugun bi erak:

- Produkzio dimentsioa: adieraztea, sortzea, komunikatzea... irudien, soinuaren, mugimenduaren... bidez.
- Dimentsio erreflexiboa edota kritikoa: arteari dagozkion edota ez dagozkion ikusizko kulturaren produktuak ezagutzea, behatzea, analizatzea, interpretatzea...

Arloko azterketa-objektu gisa zehaztutakoa aintzat hartuta eta hori lantzeko planteamenduari jarraituta, hezkuntzaren eta ikusizko arteen baliabide teknikoen zein prozesuzkoen baliabide erabiltzea pentsatzen ari dira. Horiek guztiak erabat beharrezkoak diren erreminta gisa ulertu behar dira, produkzio eta gogoeta dimentsioak garatzeko.

Langune horiek guztiek sare erakargarria eta zabala osatzen dute, eta hortik igarotzen da ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ere, behar bakoitzarentzat egokiena den lan modua aukeratuta.



Irakaskuntzako ekintza zehaztutako edukietatik abiatuta antolatzearen arazoa hainbat egilek landu izan dute (Efland, 1995*). Efland-en aburuz, artea bezalako ikasgai baten ezaugarri nagusia ondokoa da: ez dauka egitura itxia, baizik eta ideien, edukien sare zabal gisa uler daiteke, eta hainbat sarrera-ikuspuntu ere lantzen du.

Hala, edukiak egituratzeko modeloak aldatzen joan dira, eta uneko hezkuntza artistikoaren ikuspuntuarekin koherenteak izaten saiatzen ziren ikuspuntuak eskaini izan dira.

Dokumentu honetan, aurreko proposamenetan oso gutxi agertu ziren lan-espazioak irekiko dituzten edukien blokeak eraikitzea nahi dute. Nahiz eta aurreko proposamenetan ere beste batzuk bildu eta horiek estetikoki hezitako pertsona baten mainak, trebetasunak, ahalmenak eta gaitasunak garatzeko beharrezkoak izan.

Hori dela eta, arlo honetan garatuko diren **edukien** blokeak, ondoko eremuetan, erantzunak ematen saiatuko dira:

- **arteen eta ikusizko kulturaren funtzio espresiboei, komunikatiboei eta narratiboei** erreferentzia egiten dietenak eta horiek kritikoki ulertzera hurbiltzen direnak.
- **hizkuntza plastikoaren eta ikusizkoaren** baliabideak lantzen dituztenak;
- **arteen eta ikusizko kulturaren sortzeko prozedurak eta teknikak** lantzen dituztenak.

Edukien hiru bloke handi horiek elkarrekiko harreman estua daukate, eta, esan bezala, curriculum proiektuen eta diseinatzen diren ikasgelako programazioaren arabera, talde oso anitzak osatzen dituzte.

Blokeak irakasleei etapa horretan landu beharreko informazioa aurkezten dieten edukien taldeak dira. Ezarritako gaitasunak lortzeko egokienak direla irizten den edukiak adierazten dira blokeetan. Bigarren hezkuntzan ikasleek



begirada zorrotz eta kritikoagoa izan dezaten lortzera bideratu behar dugu gure lana, batez ere beraien ingurumen bisualarekin.

Bloke horiek ez dute gai-zerrenda bat osatzen. Ez dira bere barruan zentzua daukaten tokibanatutako unitateak. Irakasleek ikusiko dute nola banatu ziklotan, sekuentziaka, eta horiek arduratuko dira programazioaren garapenerako beharrezko aukeraketa egiteaz.

Bloke bakoitzean hiru eduki mota desberdintzen dira: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Eduki mota horiek ezin dira banatuta landu. Zentzurik ez dauka bloke bakoitzerako jarduera desberdinak programatzeak; izan ere, hiru blokeei buruzko lanak ekarriko du ikasleek behar dituzten gaitasunak lantzea.

Azkenik, esan behar da edukiak aurkezteko ordenean inork ez dauka besteek baino lehentasun handiagoa.

1. blokea. Arteen eta ikusizko kulturaren funtzioak eta erabilera espresiboak, komunikatiboak eta narratiboak		
KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko eta komunikatzeko beharra, irudien bidez.</p> <p>Irudi edo objektu artistiko batetan bere komunikazio, narrazio edo espresio xedeak islatzeko gure kulturaren eta beste batzuetan sortutako arazoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - hirugarren dimentsioaren irudikapena. - errealismo kontzeptuak irudietan. - denboraren eta espazioaren irudikapena. <p>Irudiei emandako funtzioak: botere eta gizarte rolen baieztapena, ideologikoa, komunikazio teknikoaren euskarriarena, limurtzailea...</p> <p>Artearen eta irudien funtzioak zein erabilera mediatizatzen dituzten faktore sozialak eta kulturalak.</p> <p>Artearen eta artistaren ikusmolde ezberdinak historia eta kulturetan zehar.</p> <p>Objektu artistikoak eta irudiak balio kulturalen eramaile gisa.</p> <p>Artea eta irudiak nortasun indibidual eta kolektiboaren eratzailerak gisa.</p> <p>Artea eta irudiak ikusi eta interpretatzeko orduan testuinguru sozial eta kulturalak eta esperientzia pertsonalak duten garrantzia.</p> <p>Gaur egungo kultura eta irudiak. Irudiak</p>	<p>Produzitzailerak gisa, irudi bat egiterakoan sortutako arazoak eta zalantzen analisia.</p> <p>Kultur zein denbora-testuinguru desberdinetako esperientziaren eta lanen arteko erlazioak, errepresentaziorako irtenbideak eta estrategiak aitortzeko.</p> <p>Irudikapen arazoak ikerketa une eta testuinguru zehatzetan.</p> <p>Artelanen eta adierazpen bisualen analisia beraien testuinguru historikoan.</p> <p>Artearen eta adierazpen bisualen ikusmolde ezberdinen arteko eztabaida arrazoituak garatzea.</p> <p>Irudiek une historiko ezberdinetan izandako erabilpen eta esanahi ugaritasuna aztertzea.</p> <p>Irudi sorkuntza eta adierazpen modu berrien inguruko argudiaketa arrazoitu eta kritikoa.</p> <p>Esanahiak proposatzea eta lan propioei buruzko baieztapenak egitea.</p> <p>Artarekin eta ikusizko kulturarekin zerikusia duten albisteei buruzko irakurketa eta eztabaida.</p> <p>Museo, erakusketa, gertakari dramatiko eta musikaletara joatea ekintza artistikoak modu aberatsagoan ulertzeko.</p>	<p>Arte eta kultura bisualaren adierazpenen intenzionalitate, helburu eta funtzioaren balioztatzea.</p> <p>Irudiak sortzeko prozesuetan eta ikertzeko gaitasunaren zein irtenbide berriak bilatzearen joera artistikoak errekonozitzea.</p> <p>Irudien eta adierazpen artistikoen analisiaren eta balorazioaren aurrean jarrera irekia eta malgua.</p> <p>Espazio eta denbora ezberdinetako irudi eta objektu artistikoak ezagutu eta ulertzeko interesa eta horien balioztatzea faktore ezberdinetako bilduma konplexu bezala.</p> <p>Publizitatean, interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideetako beste produktu batzuetan erabilitako irudien balioztatze kritikoa.</p> <p>Gure eta beste kultura batzuetako irudi eta objektu estetikoaren helburuekiko kontzientzia kritikoa identifikatu eta sortzea.</p> <p>Adierazpen artistikoak berezko nortasunaren ezagutza iturri bezala antzeman eta ulertzeko interesa eta jakin-mina.</p> <p>Kanpoko esperientzia artistikoen zein propioen adierazpenekiko sentsibilitatea eta errespetua.</p> <p>Gustu propioetatik aldendutako produkzioekiko</p>

<p>errealitateari buruzko diskurtsoen eta munduaren gaineko begiraden euskarri bezala.</p> <p>Egungo kultura, kontsumoa eta merkatua.</p>	<p>Irudien interpretazio ezberdinen ikerketa eta aldaratzea faktore kultural, sozial, eta pertsonalen arabera.</p> <p>Irudiek munduari eta gu geuri buruz ikuspegiak emateko, diskurtsoak eraikitzeke eta errealitateari buruzko jarrera hartze zehatzak finkatzeko duten moduaren ikerketa eta ikuskapena.</p> <p>Botere egoerekin lotutako gai eta ideiak adierazten dituzten irudien azterketa (arrazakeria, gizarte eta genero desberdintasunak...).</p> <p>Irudiak prozedura ezberdinak erabiliz lantzea dauden irudien erantzun eta elkarrizketa bezala.</p> <p>Euskarri ezberdinak erabiliz nortasun propioarekin eta gertuko arazoekin lotutako kontaketa bisualak eraikitzea pentsamendu kritikoa garatzeko.</p>	<p>tolerantzia.</p> <p>Historiako adierazpen artistikoen dibertsitatearekiko sentsibilitatea, horiek adierazpenerako eta nortasun kulturalerako elementu gisa hartuta.</p>
---	---	--

2. blokea. Plastika eta Ikus Hizkuntza		
KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Irudi eta produktu bisualen oinarrizko elementu formalak: itxura, kolorea eta ehundura.</p> <p>Irudiaren elementu formal egituratzaileak: konposizioa eta oinarrizko elementuen</p>	<p>Oinarrizko elementu formal egituratzaileen behaketa plastika eta ikus ingurunean.</p> <p>Artelaren eta kultura bisualeko produktuen behaketa eta analisi formala garai ezberdinetan.</p>	<p>Lan-egitasmo bat antolatzeke interesa eta jarrera aktiboa.</p> <p>Estereotipoak gainditzea irudikapen grafikoetan, kolorearen erabilpenean...</p>

<p>erlazioa (erritmoa, mugimendua, proportzioa...).</p> <p>Pertzepzio bisuala. Pertzepziorako elementuak: gertutasuna, antzekotasuna, kontrastea, jarraipena, estimuluaren intentsitatea...</p> <p>Proiektu artistiko eta mediatiko konplexuak (<i>performanceak</i>, artea sarean...).</p> <p>Espazioa elementu plastiko gisa.</p> <p>Bolumena. Bere irudikapena planoan.</p> <p>Espazioaren irudikapena planoan.</p> <p>Formen arteko espazio erlazioak.</p> <p>Irudiaren ezaugarriak: ikonizitatea/abstrakzioa, anbiguotasuna/nabaritasuna, soiltasuna/konplexutasuna, denotazioa/konnotazioa...</p> <p>Inguruan nabaritutakoaren memoria bisuala: natura, irudiak, ekintza artistikoa...</p> <p>Plastika eta ikus hizkuntzaren kodigoak: ikonologikoa, sinbolikoa, estetikoa...</p>	<p>Bidimentsionaltasunetik tridimentsionaltasunera igaro behar den esperientzien gauzatzea.</p> <p>Tridimentsionaltasunaren simulazioa espazio bidimentsional batean (bolumendun formetatik forma lauetera).</p> <p>Forma berdin baten zatien artean dauden erlazioen deskripzio eta analisia (eskalak, erlazioak...).</p> <p>Sormenezko estrategia ezberdinen erabilpena mezu bisuala lantzeko orduan.</p> <p>Trazatu geometrikoen erabilpena formak eraikitzeko.</p> <p>Espazio errealean esku-hartzeak.</p> <p>Kolorearen eta argiaren erabilpena bolumen eratzailer eta forma sortzailer bezala.</p> <p>Forma berdin baten zatien artean dauden erlazioen esperientziak (eskalak, erlazioak...).</p> <p>Formen behaketa zuzena egoera eta baldintza ezberdinetan.</p> <p>Behaketa ez-zuzena irudi grafikoan, ikus-entzunezkoen... bidez</p>	<p>Plastika eta ikus hizkuntzaren erabilgarritasunaren eta bere komunikazio eta espresio aukeren aitortzea.</p> <p>Irudikapen grafikoei aurre egiteko orduan irtenbide originalak bilatzeko jarrera positiboa.</p> <p>Oroimen bisualaren balioztatzea prozesu artistikoen erraztaile bezala.</p> <p>Artelanean eta inguruan elementu formalak deskubritzeko interesa.</p> <p>Ondare artistiko eta kulturalaren balioztatzea, errespetua eta gozamina.</p> <p>Beste pertsona batzuen iritzi eta lanekiko errespetua eta interesa.</p> <p>Aukera espresibo propioen balorazioa, inhibizio ezean eta naturaltasunean oinarritutako jarrerak hartuta.</p>
---	---	---

	<p>Forma eta irudien deskripzioa irudiak barneratu eta lantzeko modu bezala.</p> <p>Irudi ezberdinen irudikapen objetibo eta subjektiboak.</p>	
--	--	--

3. blokea. Sortzeko prozedurak eta teknikak		
KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Irudi finkoa adierazteko bitartekoak: marrazkia, pintura, modelatua, argazkia...</p> <p>Integratutako hizkuntzak adierazteko bitartekoak: komikia, aurkezpenak, web orriak...</p> <p>Irudi mugikorra adierazteko bitartekoak: zinema, bideoa, telebista, eskultura zinetikoa...</p>	<p>Teknika ezberdinen aplikazioa eta esperimendazioa (ikus-entzunezkoak, teknologia berriak...).</p> <p>Euskarri mota ezberdinen ezagutza eta erabilpena, eta lan proiektu jakin batzuentzako egokiena den materialaren analisia.</p> <p>Ohiko eta ezohiko materialen bilaketa, ikerketa eta</p>	<p>Lan bakoitzarentzat teknika egokiena aukeratzeak suposatzen duen ahalegin-ekonomiaren balioztatzea.</p> <p>Materialak ondo erabiltzeko ardura izatea, baita lantokia zaintzeko ere: ikasgela, tailerra edo laborategia.</p> <p>Material ezohikoak ezagutu eta erabiltzea balizko</p>

<p>Espresso bideen teknikak. Beraien kokapen historikoa eta beraien lantze-prozesua.</p> <p>Euskarriak, materialak eta tresnak. Gaitasunak, berezitasunak eta erabiltzeko era.</p> <p>Lantze eta sormen prozesua: planifikazioa, errealizazioa eta balorazioa.</p>	<p>erabilera, eta dituzten ahal espresibo bidimentsional zein tridimentsionalak ikertzea.</p> <p>Teknika bakoitzaren arabera beharrezkoak diren tresnak erabiltzea beraien maneia ezagutu eta menperatzeko, eta beraien gaitasunak eta erabilpen aukerak ikertzea.</p> <p>Teknika, prozesu eta emaitza ezberdinen analisi eta praktika konparatiboak.</p> <p>Arazoak konpontzeko teknika eta prozedura egokienak aukeratzea bakarrean zein taldeka.</p> <p>Berezko ekimena baliatzea material eta tekniken erabilerarako, betiere sormenezko eta jatorrizko ideiak sustatuz.</p> <p>Espresso, komunikazio eta irudikapen modu ezberdinen behaketa eta analisia.</p> <p>Irudiak eta proiektu artistikoak egiteko prozesuak taldeka antolatzea eta garatzea.</p> <p>Taldekako lanean ardurak antolatzea eta banatzea.</p>	<p>elementu espresibo bezala.</p> <p>Talde jarduera eta lanetan aritzeko jarrera ona, betiere adostutako akordioetara heltzeko ahalegina eginez.</p> <p>Adierazpen artistiko askotan taldeko lana garrantzitsua eta ezinbestekoa dela aitortzea.</p>
--	---	--

Laugarren mailarako zehaztasunak

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako laugarren mailan arlo hau hautazko ikasgaia da. Etaparen amaieran izateak aurreko mailatan garatutako edukiak berrikusteko baldintza egokiak sortzen ditu, baina betiere sakonago eta ikaslearen aldetik kontzientzia eta abstrakzio maila handiagoarekin. Eduki konplexuagoak proposatu beharko lirateke, eta hurrengo arloak sakondu beharko lituzkete:

- irudien eta adierazpen artistikoen arlo formal, estetiko, sentikor, funtzionalen... ezagutza
- plastika eta ikus hizkuntzaren eduki konplexuagoen eta horien helburu espresibo eta deskriptiboan ezagutza
- heldutasun handiagoa eta lortu nahi den helburuari egokitutako planifikazioa eskatzen duten tekniken eta sorkuntza prozeduren ezagutza



EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak bat etorri beharko lukete aurretik adierazitako arloaren kontzepzioarekin. Pertsonak arteari eta ikusizko kulturari aurre egiteko bi moduak lantzen dituen kontzepzioa; batetik, irudien eta objektu artistikoen hartzaileei, kontsumitzaileei... erreferentzia egiten dietenak, eta, bestetik, horiek eragile produzitzaile gisa kokatzen dituztenak.

Aurretik esan bezala, espresioari, sortzeari, komunikazioari, erabilerari... lotutako alderdiak bilduko lituzkeen produkzio dimentsioa gogoeta zein kritika egiteko dimentsio gisa kontsideratu beharko litzateke. Dimentsio hau ezagutza, behaketa, analisia, azalpenak, interpretazioa... bezalako alderdietan oinarrituko litzateke.

Era berean, aurretik aipatutako arlo honetako planteamenduak kontuan izanda, garrantzitsua da praktika artistikoa banakako gertatera gisa ulertzen duten ebaluaziorako iraganeko kontzepzioak gainditzea. Banakako gertatera hori "jeinu artistikoa"ren begirada mitikoari lotua dago, eta berak bakarrik egiten dio aurre bere "lana"ri. Interpretazioa beste pertsonen esku uzten du. Ikasleak lanak arrazonatzeko, analizatzeko, beste produktuekin erlazionatzeko eta abarretarako gai izan behar du, eta aurkezten zaizkion arazoen aurrean irtenbideak aukeratzen jakin behar du. Horrek guztiak ebaluazioaren objektu izan behar du, ez azken produktua soilik.

Ebaluazioa ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan integratu behar da, eta, hori dela eta, ez da azken emaitzetan soilik oinarritu behar. Irakasleei zein ikasleei informazioa eman behar die aurkituko dituzten zailtasunak eta horiei zer erantzun eman azalduta. Helburua lana aldatzea eta praktika hobetzea da.

Arlo honetan, planteamendu praktikoz betetako oinordekotzarekin, beharrezkoa da prozesu erreflexiboetan zentratuagoak dauden proposamen metodologikoei eta ebaluazioari zuzenean eragiten dietenei erreferentzia egitea; hala nola:



-Ikasleek ideiak azaltzeko, planteatutako gaitasunak martxan jartzeko eta egoera berrietan lortutako ezagutzak transmititzeko proiektuak prestatzea. Proiektuak eguneroko bizitzako gaietatik, arazo artistiko jakinetatik edota beste arloetako edukiei lotutako gaietatik sor daitezke. Bestalde, horrek diziplinen arteko proposamenak egiteko aukera irekitzen du.

-Ikasleek lan-prozesurako materialak jasotzeko paper-zorroa edota karpeta bezalako erremintak erabiltzea: zirriborroak, erabilitako ikusizko erreferentziak edota beste mota batekoak, gogoetak, ideiak... Tresna hau bereziki erabilgarria da ikaslea bere kabuz ikasten duenaz jabetzeko eta arlo honetako ezagutza finkatzeko. Gainera, ariketa mota horiei esker, ikasleek esfortzu kognitiboa eta autoestimua erantzat garapen esfortzua lantzen dute.

-Edukiei lotutako irudien errepertorio zabala eta aberatsa sistematikoki erabiltzea, baita gogoeta eta eztabaida egiten laguntzen duten testuak eta beste dokumentu mota batzuk ere. Eztabaida eta gogoetarako gune hauei esker, ikasleek partekatutako ezagutza eraikitzen dute, hainbat begiradatan eta irizpidetan oinarrituta.

Iradokizun metodologiko horiek inplizituki daramate ikasleen ikaskuntzari eta irakasleen parte-hartzeari lotutako ebaluazioaren prozesu iraunkorrari buruzko ideia.

Jarraian, arlo honetarako zehaztutako gaitasunei lotuta, ebaluaziorako irizpideak adierazten dira.

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p>1. Inguru naturaleko eta kultureko irudiak eta formak modu kritikoan ulertu eta interpretatu, horien ezaugarri plastikoekiko, estetikoekiko eta funtzionalekiko sentikor agertuta. Helburua arteen esparru orokorra eta horiek mundu garaikidean duten lekua ulertzea eta barneratzea da.</p>	<p>Irudi eta adierazpen artistiko mota ezberdinetan plastika eta ikus hizkuntzaren elementuak bereiztea.</p> <p>Ekoizpen artistiko eta bisual jakin batzuekin harremana duten faktore historiko eta sozialak aztertzea eta bereiztea.</p> <p>Une historiko ezberdinetan emandako irudien erabilpen eta esanahiak arrazoiekin argudiatzea.</p> <p>Garai eta kultura ezberdinetako lanetan irudikapen irtenbide eta estrategiak aztertu eta bereiztea.</p> <p>Irudi eta ekoizpen artistiko zehatz batzuetan sustatutako manipulazio eta diskriminazioen aurrean era kritikoan erreakzionatzea.</p>
<p>2. Ekintza artistikoa kultur ondarearen zati integratzaile gisa baloratzea, adierazpen artistikoei eta kulturei buruz interesatuta. Helburua, modu aktiboan, artea errespetatzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko ekarpenak egitea da.</p>	<p>Bere inguru hurbileko jarduera artistiko eta kulturalak ezagutzeko eta horietan parte hartzeko interesa izatea.</p> <p>Antolatutako jarduera ezberdinetan errespetuz eta jarrera onaz parte hartzen du.</p> <p>Irudien espresio bide ezberdinak eta horiek mugimendu artistiko zehatz batzuetan duten erabilpena era egokian bereiztea.</p> <p>Artea eta artista ikusteko eran aldaketak sortzen dituzten eragile sozial eta kulturalak bereiztea.</p> <p>Artearen ikusmolde eta adierazpen estetiko ezberdinen artean alderaketak ezartzea.</p>

<p>3. Euskarri eta prozedura artistiko desberdinak erabiltzea: bi dimentsiokoak, hiru dimentsiokoak edo/eta ikus-entzunezkoak (teknologiez baliatuz edo ez), hainbat mezu sortzeko.</p>	<p>Irudiak sortzeko baliabideak behar adina trebeziarekin aplikatzea.</p> <p>Bere helburu komunikatiboari dagozkion euskarri eta prozedura egokia erabiltzea.</p> <p>Arazoak konpontzeko orduan bilatzeari ekitea, pertzepzioa, miaketa eta sentikortasuna artikulatuz.</p> <p>Inguruan eta produkzio artistikoetan, asmo espresiboekin eta komunikatiboekin konektatzen diren erreferenteak eta ideiak bilatzea.</p> <p>Bere ekoizpenei zentzua ematen dieten plastika eta ikus baliabideen erabilpena arrazoitzea.</p>
<p>4. Hizkuntza plastikoak eta ikusizkoak beste hizkuntzekin daukan harremana ulertzea, elkarrekin erlazionatuz eta integratuz, produkzio artistiko konplexuak proiektatu eta planifikatzeko.</p>	<p>Proiektu artistiko bat hasieratik bukaerara arte modu koherentean garatu eta zuzentzea.</p> <p>Ikusizko kulturako eremu komunikatiboan artean (komikia, zinema, diseinua, artea...) loturak ezartzea.</p> <p>Hizkuntza ezberdinak proposamen konplexu batean uztartzea.</p> <p>Bere mundu estetikoa bere kulturako edo beste batzuetako adierazpenekin erlazionatzea.</p>

<p>5. Adierazpen estetikorako beste moduak -bakoitzarenekiko eta gizartean nagusi direnekiko ezberdinak- errespetatu eta aintzat hartzea, gogoeta-prozesu kritikoetara joz, ikasleek estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditu ditzaten eta beren erantzunak lantzeko orduan euren erregistroak zabaltzeko gai izan daitezten.*</p>	<p>Bere zein besteen lan artistikoetan aurrez pentsatutako ideiak gainditzea eta proposamen berriak ikertzea.</p> <p>Espresio eta adierazpen mota ezberdinekiko eta beste pertsona batzuen adierazpen estetikoekiko jakin-mina eta errespetua adieraztea.</p> <p>Gaur egungo eta iraganeko adierazpen estetikoetan islatzen diren erlazio kulturalak ezagutzea.</p> <p>Espresio eta adierazpen mota ezberdinek dauzkaten ezaugarri funtzional eta estetikoek jakitun izatea.</p>
<p>6. Beste pertsonekin erlazionatzea eta taldeko jardueretan parte hartzea, ezaugarri pertsonaletatik edota sozialetatik eratorritako inhibizioak eta aurreiritziak gaindituta. Helburua malgutasunean, elkartasunean, interesean eta tolerantzian oinarritutako jarrerak garatzea da. *</p>	<p>Taldeko proiektu eta lanetan era aktibo eta arduratsuan parte hartzea.</p> <p>Taldean sortzen diren adierazpen eta ekarpen ezberdinak errespetatuz parte hartzea.</p> <p>Banaka zein taldean erabili beharreko materialak eta erremintak errespetatzea, zaintzea eta garbi mantentzea.</p> <p>Taldeko arazoak konpontzeari ekarpenak pertsonalak egitea.</p>
<p>7. Ikusizko baliabideen eta baliabide plastikoen garrantzia baloratzea, bizipenak, sentimenduak eta ideiak adierazteko bitarteko gisa. Horretarako inhibizioak gainditu behar dira, eta horiek orekari eta ongizate pertsonalari egiten dizkieten ekarpenak ulertu behar dira. *</p>	<p>Originaltasun eta irudimenaz espresatzen da, bere lanak hobeak izan daitezten ahalegina eginez.</p> <p>Erantzun artistiko arrazoituak lantzea bere eguneroko ingurumeneko gai eta arazoen aurrean.</p> <p>Auzi ideologiko eta sozialekin lotutako intenzionalitateak antzeman eta identifikatzea bere inguruko mediatikoko irudietan.</p> <p>Plastika eta ikus baliabideen aukera ezberdinak esperimintatzea estereotipoak gaindituz.</p>
<p>8. Ikusizko baliabideen eta baliabide plastikoen aukerak kontsideratzea,</p>	<p>Informazio eta komunikazio-hedabideetan eta eremu sozio-</p>

erabiltzea eta baloratzea, egungo kulturaren, irudiaren eta komunikazioaren munduak egiten dituen ekarpenez jabetzeko. *

kulturalean irudiak duen garrantziaren eta protagonismoaren jakitun da.

Informazio eta komunikazio-hedabideetan mezu bisualek duten garrantziaren, protagonismoaren eta eraginkortasun estetikoaren kontzientzia hartzea gutxika-gutxika.

Baliabide plastiko eta bisualak helburu komunikatibo argiarekin erabiltzea.